

TEMPORAL DE NIEVE Y GRANIZO. DEL 25 AL 29 DE DICIEMBRE

Durante los días 25 y 26 de diciembre el País Vasco se ve afectado por la llegada de una masa de aire de procedencia ártica, originando un descenso de las temperaturas y descendiendo la cota de nieve hasta los 300 metros. Destacar las tormentas con granizo, que por ejemplo dejan blancas las calles de Donostia durante la mañana del día 26. A lo largo del día 27 la situación mejora de una forma progresiva, remitiendo las precipitaciones y subiendo la cota de nieve.

Los problemas originados por el espesor de la nieve no son de consideración dentro de la CAPV, con un espesor medio entre 5 y 10 cm a 500 m de altura, aunque cabe destacar que en la provincia de Burgos numerosas personas quedan atrapadas en las carreteras durante un largo período. El espesor en Burgos alcanza los 60 cm.

La situación sinóptica en superficie se caracteriza por la llegada de un frente frío activo a primeras horas de la mañana del día 25, dejando las primeras precipitaciones, y atravesando todo el territorio a lo largo de la mañana. Tras su paso se genera una corriente de componente norte, originada por el anticiclón centrado en el Atlántico y la borrasca centrada en el Mediterráneo, llegando una masa de aire frío y húmedo. El día 27 la masa de aire frío se desplaza hacia el este dando por finalizado el episodio (ver figura 9.1)

En el nivel de 850 hPa, se puede apreciar una entrada de aire frío con vientos del NW al comienzo del episodio, que van girando a componente norte, con temperaturas por debajo de $-4\text{ }^{\circ}\text{C}$ a partir de las 00 UTC del día 26, manteniéndose en torno a los $-5\text{ }^{\circ}\text{C}$ hasta el día 27 a las 12 UTC (ver figura 9.2).

En el nivel de 500 hPa, se observa una circulación meridiana intensa con temperaturas del orden de -36°C , originando gran inestabilidad (ver figura 9.3).

ELUR- ETA TXINGOR-EKAITZA. ABENDUAREN 25ETIK 29RA

Abenduaren 25 eta 26an aire-masa artiko bat Euskal Herrira heldu zen. Ondorioz, tenperaturak behera egin eta elur-kota 300 metrora kokatu zen. Hilaren 26an Donostian izandako txingor-ekaitzek, goizean zehar kaleak zuritu egin zituzten. Hilaren 27an, ordea, egoera pixkanaka hobetzen joan zen, atertzen eta elur-kota igotzen joan zelarik.

Elur-geruzaren ondorioz sortutako arazoak EAEn ez ziren aipatzekoak izan; 500 metrora 5-10 cm inguru metatu ziren. Burgosen 60 cm pilatu ziren eta inguruko errepedetan jende ugari geratu zen harrapatuta denbora-tarte luze batean.

Azaleko egoera sinoptikoaren arabera, hilaren 25eko lehen orduetan fronte hotz eraginkor bat heldu eta lehen prezipitazioak utzi zituen, goizean zehar lurralde osoa zeharkatu zuelarik. Ondoren, Atlantikoan kokatutako antizikloiaren eta Mediterraneoan finkatutako depresioaren eraginez, iparraldeko korrante bat sortu zen, aire-masa hotz eta heze bat heldu zelarik. Hilaren 27an aire-masa hotza ekialderantz mugitzen joan eta pasarte hau amaitutzat eman zen (ikus 9.1 irudia).

850 hPa-etako mailan aire hotza sartu zela ikus daiteke, ipar-mendebaldeko haizearekin pasartearen hasieran. Haizeak pixkanaka iparraldera egin zuen, 26aren 00 UTCtik aurrera haizearen tenperatura $-4\text{ }^{\circ}\text{C}$ azpitikoa izanik eta $-5\text{ }^{\circ}\text{C}$ inguruan mantenduz 27ra arte 12etan UTC (ikus 9.2 irudia).

500 hPa-eko mailan, ezegonkortasun handia zekarren $-36\text{ }^{\circ}\text{C}$ inguruko ipar-hego zirkulazio indartsua ikus daiteke (ikus 9.3 irudia).




Figura 9.1. Presión al nivel del mar y frentes. Del 25 al 27/12/2004 a las 12 UTC.
9.1 irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak, 2004/12/25etik 27ra 12etan UTC.




Figura 9.2. Geopotencial e isotermas a 850 hPa. Del 25 al 27/12/2004 a las 12 y 00 UTC.
9.2 irudia. Geopotentziala eta isotermak 850 hPa-etara , 2004/12/25etik 27ra 12etan eta 00tan UTC.




Figura 9.3. Geopotencial e isotermas a 500 hPa. Del 25 al 27/12/2004 a las 12 y 00 UTC.
9.3 irudia. Geopotentziala eta isotermak 500 hPa-etara , 2004/12/25etik 27ra 12etan eta 00tan UTC.